

Zer egin nahi duzu geroan?



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA ETA ERGATIBOLOGOA

PAULA ESTÉVEZ

Badirudi hamasei urteko semea buruhauste handirik gabe ari zaigula batxilergoaren ondotik jarraituko duen bideari buruzko gogoetak egiten. Batean, batxilergoko gai berezien hautaketari buruz hitz egiten digu, bestean, egin beharko dituen pausu administratiboei buruz, galderarik gabe, baieztapen bidez, eta sudurra gehiegi sartuz gero, “dena den *Parcours-up-en formularioa* bete beharko da data hau aitzin” erantzunez, bare.

Orain *Parcoursup* deitzen da etorkizunaren maisua. Webgune bat baizik ez da, Frantziako Hezkuntza Ministerioak kudeatua. Horren bidez, batxilergoaren aitzineko urtean berean, ikasleek aukera dute, lehenik, informazioa jasotzeko eskura egon daitezkeen ikasketa eta presaktakunza programei buruz, bigarrenik, hautatzeko eta baxoaren ondotik non segitzeko asmoa duten adierazteko, hirugarrenik, jakiteko itxarote zerrenda batean zein postutan diren, eta azkenik, eskolen onarpen edo ukoaren berri jakiteko. Orain denentzat bide berak dira eta prozedura berak. Denek informazio maila bera dute. Eta, teoriarik, guztiak hautatzen ahal dute *nahi* dutena. Hots, ikasleek ez dute orain unibertitate-

tan gaindi ibili behar txostenak besapean informatzeko edo izena emateko. Horretan aitzinamendua da eta, kritika anitz ukan dituen sistema horrek, prozesu guztia leku berean zentratzen du, behintzat.

Bizkitartean, sistemak baditu alde ilunak. Seme-alabengan kezkarik sortzen ez duela badirudi ere, hamasei urte besterik ez dituzten gazteei betiere “zer izan nahi zenuke gero?” itauna zuzentzen die eta begirada urrunera jartzen. Anitzen kasuan, burutazio anitz dakartza: “Zein ikasketa hautatuko ditut? Zein gai ditut lehentasunez ikasiko, ez gero petzero gelditzeko, hau da, ahal bezainbat aukera nire alde atxikitzeko? Zein dira nire buruari permititzen ahal dizkiodan ikasketak, gaitegiak, lanak? Zeinetarako naiz ez *txarregia*? Zein ez da karioegia?”.

Gainera, “hartua izan” eta “errefusaturia izan” sententziaren menpe jartzen dira, jakin nahian ea norbaitek nahiko ote dituen, eta hain definituak ez dituzten beren buruekin parez pare jartzen ditu, haiengan ez duten konfiantza kolokan jarrita.

Maiz, batere definitua ez duten egitasmo baten arabera hautu eta bazterketa egiten dituzte, den mendreneko

lan esperientzia edo ezagutzarik ukan gabe kasik.

Oroz gainera, aitzina segitzen du selekzioak, emaitzen arabera, maila sozialaren arabera, kokapen geografikoaren arabera. Aukera berdintasuna erlatiboa da.

Hamasei-hamazazpi urte genituelarik, deus gutxi genekien, eta jaten gintuzten arrangurak arinak eta bakan-bakanak ziren: salbu galdetzen zigutenean zein lan egingen genuen *berantago*. Berehala hautatu behar izan balitz bezala, kezka bat sortzen zigutela orduan ingurukoek, ez baikenuen ideia izpirik horretaz, baikenekien ez geniela gure buruei baimentzen ahalko edozein gauza, batez ere, zerbait hautatzeko beste hainbat gauzari uko egitea suposatzen baitzuen, eta atzerabiderik ez ukaitez ere ginen beldur. Batzuetan, ingurukoek erran zigutenaren arabera hautatuko genuen.

Agian, geure buruei hitz eman genien gure haurrak ez genituela hain goiz hautatzera akuilatuko, libre utziko genituela eta lasai. Ez da guregatik, baina ez da hala gertatzen ari... Saiatu beharko dugu isilik egoten, bederen, formularioa ez dezaten guri entzuten arabera bete. ●